

Jarduera farmakologikoa duten substantziak erabiltzea elikagai-osagarrietan.

Oharra: Elikagai-osagarri gisa osagaien artean jarduera farmakologikoa duten substantziak dituzten produktuak merkaturatzen ari direla atzeman da, eta, beraz, medikamentutzat hartu behar dira. Gainera, ez da horien berri ematen etiketan. Produktuak, zenbaitetan, legez kontrakoak dira, eta ondorio kaltegarriak eragiten dituzte.

Osagaiak: tadalafiloa, sildenafiloa, bardenafiloa, homosildenafiloa, fentolamina, sibutramina eta abar.

Elikagai-osagarri hauek izan ditzakete:

Sexu-funtzioa hobetzen dutenek.

Masa muskularra areagotzen dutenek. Kulturistek edo kirolariek erabiltzen dituztenek.

Pisua gutxitzeko balio dutenek.

Deskribatu diren ondorio kaltegarriak:

Era askotakoak eta larritasun-maila askotakoak izan daitezke erabilitako printzipio aktiboaren, kontsumo-jarraibideen edo norbanakoaren erantzunaren arabera, baina oro har, hauek aipatzen dira: nerbio-sistema zentraleko arazoak, asaldura kardiobaskularrak edo hepatikoak. Beste medikamentu batzuekin interkazioak dituztela ere deskribatu da

Gomendioa:

ez kontsumitu konposizioan aipatutako osagai horiek dituzten elikagai-osagarririk edo dietetikorik.

Ez erosi produkturik seguruak ez diren merkaturatze-bideen bidez.

Errespetatu dosifikazio-jarraibideak, elikadura-produktu bereziak edo osagarriak kontsumitzen badira.

Galdetu zure medikuari zer elikagai-osagarri edo dietetiko erabil dezakezun.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 2a.